

**BITORIANO GANDIAGA GOGOAN  
HERIOTZA BIZITZA-HAZIA**

**Azken egotaldia poetarekin**

Gizon, frantziskotar eta poetaren heriotzaren lehenengo urteurrenak, ezinbestean, harekin izandako azken hartu-emonak gogoratzera darama lerroon egilea: 2000. urteko abenduaren 24a, Gabon eguna, arratsaldeko lau eta erdiak inguru Gurutzetako ospitalean. Emazte Mariak lagundurik 337 zenbakidun atea kax-kax jo eta poeta zegoen gelan sartu ginen. Ondo samar topatu genuen gizona, animutsu; lagun, senide eta erizainen artaz lagundurik. Amultsu hartu gintuen. Irakurtzeko astia izango zuela pentsaturik, J. M<sup>a</sup> Irigoienek *Lur bat baratago* nobela mardula eraman genion Olentzero-opari, orri xume baten eskuz idatzitako zenbait kopia zahar Gabongorekin batera. Goxoki eta samurki —irribarretsu ere bai— hitz egiten zuen noizean behin inguratzen zitzaizkion erizainekin.

Gerotxoago, poeta gaixoak bere burua sendo ikusirik, gelan geundenok paseotxo bat egin genuen solairuko karrejuan barrena. Eta aurreko urteko Gabon arratsaldea gogoratu genuen. Izan ere, Arantzazun Gabonez, Olentzero xume bat hartuta eta B. Gandiaga eta P. Zabala itaurrean zirela, hango baserrietatik —ostatu edota jatetxeak gehienak: Zelai Zabala, Sindika, Goiko Benta...— urtero egin ohi den erronda zoraga-

rrian parte hartzeko zoria izan genuen. 1999.eko Gabon arratsaldean, ohiko kanta ezagunen ondoan, munduko baztertuen egoera ere abestu genuen, habaneraren doinuan hatan be: “Hau da trikiti Gabongo / jende askoren penazko... // Agur bat Txetxeniari / negargura ta saminez... // Emakume Bangladeshko, / galanta edertasunez, / desitxuratu zaituzte / azidoz eta ankerrez...”. Giro berezi eta zoragarri horrexetan sortu ziren *Gabon dut anuntzio* liburuko poemarik gehienak. Eta hola, kontu-kontari, etxerako ordua heltzean, honela esan genion poetari: “Bitoriano, ea hurrengo elkar ikustea Arantzazun den eta buelta bat egiten dugun mendira, Urbia aldera-edo”. Eta Gandiagak erantzun: “Urbiara ez, Artasora, Artasora joango gara”. Beraz, poetak lagunduta Artaso mitikora joango ginelako itxaropenaz utzi genuen gizona, frantziskotarra. Handik hile bi eskasetara hil kanpaiak Arantzazun, doluz jantzirik eta goibel bertako elorri apalak, negar zotinka hango ardien arranak.

### **Errail zaharra**

Nork pentsatu poetak hain goiz alde egin behar zigunik! Edozelan ere, bere azken poemak berrirakurtzen baditugu, berehala ohartuko gara poetak denboraren joana eta osasun kasakarra behialako gorputz zal eta indartsuan egiten ari ziren azpilanaz zuen susmoaz. Gaixoaldi eta ebakuntza larri baten ondoren, 1996an argitaratutako “Gaixondoa”<sup>1</sup> poeman honela zioskun:

Joan zaizkigu urteak,  
jausi zaizkigu usteak;  
konturatu ere gabe,  
ia egin du gureak.

Bide beretik, 2000.ean argitara emandako “Errail Zaharra”<sup>2</sup> olerkian areagotu egingo da zahardadearen oldarraren senti-

<sup>1</sup> “Gaixondoa”, *Zurgai*, Julio/96, 18-27. orr.

<sup>2</sup> “Errail zaharra”, *Zurgai*, Set./2000, 116-117. orr.

mendua eta bere burua trenbideko errail zahar eta ugertuaren antzeko irudikatuko digu:

Urteen buruan,  
urte pilaren buruan,  
ugarrak eta denborak  
zatiak jan edo  
itxura hondaturiko  
errail baten moduan  
ikusten dut burua.

Sorkuntza poetikoari dagokionez, gauzaeztanduta bailegoan, ezdeus dakusa poetak bere burua: "Ez naiz iristen ezer sortzera" diosku. Izan ere, nahiz eta hitz poetikoa atzemateari denbora erruz eman, zikoitz damotso denborak poetari honek irrikatutako hitza. Poetaren irrika zerbait gozoa atzematea litzateke, baina bere burua arrain-ontziko arrain gorria legez ikusten du —"aho zabalik, begiak zoro"—, bizitasun amini bat emango liokeen arnas elikagarria atzeman ezinik. Ezintasun horretan, baina, poesiari eskertu egiten dio berari hainbeste denbora kendu izana:

Poesia bada nire  
denbora zenbaiten jale.  
On dagiola halere.  
Bai baitiot hari zorrik,  
esker onik, sobra ere.

Bere egoera fisikoari erreparatuta, sartaldeko anbar kolore nekaturia dela diosku poetak, gauaren pisu beltzak zapaldua eta urte-etako gainbehera luzean doana. Horrek guztiak atzera begiratzera bultzatuko du poeta, eta joandako egun bakoitzean orri bat ikusiko du, egin barik geratu ziren ekintzen zuriuneak nabarmen eta tristuraz ikusten dituela. Eta poetari lehen-mina oldartzen zaio:

Zaharra naiz, paradisua  
akorduetan duena;  
galdutako gozoaren  
zauriondoz bizi dena.

Nostalgia malenkoniatsu horren kulunkan, denboraren joanak berarengan eta berataz idatzitakoa irakurtzen saiatuko da, pasatutako denbora horrek atzera bueltarik ez daukana ondo dakien arren. Izan ere: “Errail zaharrak / beragandik igaro / ta igarotako trenen / nostalgia du uger”. Eta metafora ederra bada —hartutako, galdutako eta inoiz ez agertutako trenen marka baitauka erraik zaharrak, hots, adinean aurrera doan poetaren bizitzak—, are ederrago begitantzen zaigu poemaren azken irudia:

Errailak ikusi ditut  
ugarrak janda lurrean.  
Lurrak lekua dagie  
beragan gorde daitezen.  
Berehala estaliko ditu  
belar handiz, maiteki.

Heriotza gertu-gertu sentitzean zuzen eta itzulingururik gabe esango digu, kasuon bederatzi puntuko neurri herrikoi eta arina erabiliz:

Heriotzara noa muturrez aurrera.  
Nahi banu ere ezin egin atzera.  
Trantzeaz gogoratzen naiz, noizik noizera,  
ikusiz nola martxan nihoan gainbehera,  
astun, erorbera  
uraren antzera,  
behera eta behera  
unetik unera,  
behin honez gero malo,  
laster lurrera<sup>3</sup>.

### **Sinesten dut bizitza**

Heriotzaren hurbiltasunak, baina, ez zuen poeta, gizona, frantziskotarra bizitzari zion maitasunetik aldenduko, eta

<sup>3</sup> Zabala, Pello: “Naturatik Aitarengana”, *Arantzazu*, 815, 2001-Apirila, 22-23. orr.

gehien maite zuenari, Jainkoagandik bizidunok hartu dugun bizitzari abestuz, eta azkenera arte lanean jardunez jarraitu zuen. Pello Zabala frantziskotar anaiak Gandiaga bizitzaren alderdi guztiak maite zituen gizona zela esan zuen poeta hil berrian. Izan ere, heriotza bizitza-hazitzat ere hartu zuen Gandiagak Hausterre asteazken batez:

Hazi bait nintzateke  
zaharra erantzita,  
gizon berri egina  
piztuko naiz Paskoz<sup>4</sup>.

Sakratua den bizitza hori, hots, gizakiok dugun dohain alai, pozkor eta galant hori, kantatu ez ezik, jagon, ospatu eta gozatu ere egin behar da poetaren ustez. Bizitzarekiko atxikimendu miragarri horrexek bultzatuko zukeen frantziskotar poeta azken igortza hartzerakoan, anaiek bizitzari kanta zieziaioten eskatzera. Honan Arantzazuko anaien berbak: "Orain urte betetsu, 2000garreneko otsailaren 4an eman zitzaion Bitoriano Gandiagari oliadura sakramentua Arantzazuko anaidiaren kaperan. Ospakizun horretan, eta berak eskatuta, bere poematxo bikain hau kantatu genuen Pello Zabalaren musikarekin:

Sinesten dut bizitza,  
pozten nau bizitzak  
poz betirainokoz:  
Piztu da Jesukristo  
sekuletako poz.

Sinesten dut bizitza,  
hari zor natzaio,  
hari eskerrak naiz;  
arretaz dut zainduko,  
ospatuko dut maiz.

---

<sup>4</sup> "Hautsa ongarrill!", *Arantzazu*, 770, 1997, kontrazala.

Sinesten dut bizitza  
betirako dohain  
alai ta galanta;  
badut zertan gozatu,  
bai-eta zer kanta”<sup>5</sup>.

Hortaz, ospatu eta gozatu beharra dugun bizitza horretako egunak genituzke unean uneko kantagairik ederrenak; eta egunotan gauza sinpleak, arruntak, egunerokoak estimagarriak. Eguneroko gauzak, euren txikerrean, gizakiok dugun ondasunik behinena, onena dateke poetarentzat:

Egungo eguna, egun ederrena.  
Egungo arnasa, arnasa behinena.  
Egungo argia, argi sotilena.  
Egungo ogia, ogi gozoena.  
Egungo ura, ur gozagarriena.  
Egungo denbora, aldirik onena.  
Egungo aukera, une apartena.  
Egungo duguna, dugun hoberena.  
Egungo garena, onargarriena<sup>6</sup>.

### Maite dut bizitza

Hil baino egun batzuk lehenago, 2001.eko otsailaren 13an Gandiagak eskutitz bat idatzi zion Jorge Oteiza eskultore eta lagunari: “Muy amado Jorge: paz y bien”<sup>7</sup>. Eskutitz horretan era hunkigarri batez bizitzaren aldeko aldarria egiten du poetak, noiz eta heriotzaren atarian, bere burua azkenetan daksanean: “Amo la vida intensamente y quiero que todos la amen y la mimen, pero tampoco estoy desesperadamente atado a ella, porque de este modo o de otro, de otro más fe-

<sup>5</sup> Arantzazuko Amaren Egutegia, 2002ko otsailaren 26ko orria.

<sup>6</sup> [www.ueu.org/euskaraz](http://www.ueu.org/euskaraz), 2001-04-10.

<sup>7</sup> *Gara*, 2001-02-22, 60. or.

liz, pienso seguir viviendo y disfrutando en Dios por los siglos”.

Geroago, bizitzan zehar poetak maite izandakoa gogoratu-ko dio oriotar eskultoreari. Mundua maite izan duela —diotso— eta nahi izan duela bizi dugun mundua gero eta gizatiaragoa, zabalagoa eta gozagarriagoa izan dadin. Baina, gehienbat, Arantzazu eta hango mendiak, trikuharriak, harrespilak eta zutarriak —euretariko zenbaitzuk berak aurkituak eta aztertuak— maite izan dituela. Santutegiaren inguruak ere berenberegi maite izan dituela aitortuko dio Oteizari aipaturiko gutunean, eta ahalik eta txukunen eta atseginen egon daitezen ahalegindu izan dela beti, horretarako zuhaitz landareak eta tantaiak erruz aldatu dituelarik.

Eta Gandiagak jarraitu egiten du, eskutitzean lagun minari munduon beren-beregi maite izandakoa aipatuz: maite izan dut komentua —diotso—, frantziskotar bizitza, Arantzazuko eliza zaharra eta haren gainean eraiki zen berria; maite izan dut santutegira hurreratu ohi den jendea; maite izan dut Jainkoaren erruki haundia, zein hemen arimen gainera jausten baita, arimok fedean, karitatean eta itzaropenean sendotuz; maite izan dut Arantzazun egin izan den artea...

“Muy amado Jorge: paz y bien” eskutitzean, santutegiko hamalau apostolu oteizarrak bailiren, hamalau aldiz aipatzen du Gandiagak maitasuna. Kasualitate hutsa, seguru asko; baina kasualitate polita zinez, maitasuna bor-borka baitario bihotzetik hara eginiko idazki samurrari. Era berean, aipatzekoa da maitasun horren kokapen espaziala zeinen ederto marrazten dion Gandiagak Oteizari, cuskeraren hurrenkerak eskatzen duen eran, betiere: mundu zabala, Arantzazu, santutegi-ko inguruak, komentua, fraide-bizitza, santutegia, Jainkoa eta Ama Birjinaren presentzia, erromesak, hango artea... Poeta euskaldunak orokortasunetik konkretutasunerantz egin baitu bidea, haren lumak maitasunak gidatutako zine-kamara bat baileraman.

## Baketuta nago

Poetak munduko bere azken uneak bizitzen ari zela ikusten zuen arren, ez zuen bakezko sentsaziorik galdu eta maitasunez blai dagoen eskutitz mamitsu horretan bere lagunari opetsi nahi zion bakea bere baitarik eskaintzea beste lanik ez zuen izan, hain zegoen bere buruaz eta bizitzaz baketuta: “Tengo molestias físicas, no dolor, simplemente molestias, pero tengo una paz y una calma grandes que me ayudan a sobrellevar la enfermedad en paz”.

Eta holantxe joan zitzaigun poeta, gizona, frantziskotarra: Arantzazuko bere eguneroko baketik betiko Bakera. Bakez eta bere bizitzaz baketurik: “Nire bizitzarekin eta hutsuneekin baketuta nago” esan zion Telesforo Zuriarrain frantziskotar anaia-ri<sup>8</sup>, hil hurrengo zegoela; baita honako hau gehitu ere: “Gustura nago, oso ondo, eguna laburra da niretzako. Ez daukat angustiarik. Bake handi batek laguntzen dit barrutik”. Berbotan argi dakusagu poeta bizitzaz eta heriotzaz ondo ere ondo adiskide- turik joan zitzaigula mundutik, une larri bezain mingarri hori olerki itxaropentsu bihurtuz. Honan Zuriarrain anaiaren hitzak: “Seguru asko, azken aldi honetan burutu du bere poemarik bikainena, ez idatziz, baina bai jator biziz eta heriotzari aurrez aurre aurpegia emanez”.

Izan ere, Telesforo Zuriarrainek, Arantzazuko nagusiak, edertasun miragarria topatu zuen Gandiagaren gela xumean poeta hil aurreko uneetan, bakezko edertasuna; zorionezko betikotasunerantz doalako daukan sinesmendunarena, hain zuzen ere. Horrexegatik hilobiratu zuten itxaropenezko kantuak abestuz Arantzazuko frantziskotarrek goiko bake argira zihoan anaia.

<sup>8</sup> Zuriarrain, Juan Telesforo: “Bitoriano Gandiagaren hiletak”, *Arantzazu*, 815, 2001, 20-21. orr. (2001eko otsailaren 22an, B. Gandiagaren aldeko hileta elizkizuncan emandako sermoi-gorazarrea).



## **Ixilik joango naz**

Harrigarria bada ere, berrogeitazak urte lehenago, *Elorri*-n, poetak iragarrita utzi zizkigun bere heriotzaren inguruko une hauek:

JOANGO naz.  
Ez dot urrerik itziko  
t´ez dot eroango.  
Joango naz ixillik,  
ta, nork jakingo dau,  
iñoiz, il nintzanik,  
bizi nazanik ia  
iñork ez badaki?  
Nire ama, nire anaiak,  
nire prailleak,  
nun izango dira?...  
Umetan lez dagoke  
nire gorpua lo  
ama-lurraren altzo  
geldi ta sakonean.  
Etzanik lagako dot,  
luze ta argi gabe,  
amesik gabeko gau  
geldi ta luzean.

Nire praille gajoak  
eortziko nabe,  
gajoak, nire ama  
ta anaiak bai dira.  
Bilduko ditue  
nire esku lazatuak  
beti estutu neban  
gurutzari lotuz.  
Jantziko deustie  
limosnako neure  
betiko abitua

t'eroango nabe  
 —nungo obi barrira?—  
 maitasunez.  
 Algodoa aldendurik  
 alkoola doaken lez  
 aldeko dot aidera,  
 argi ta garbiki,  
 Jaunaren bi eskuak  
 dodazan kabira<sup>9</sup>.

Hunkigarria, benetan! Ez da harritzekoa, beraz, 2001.eko abuztuaren 17an Donostiako Musika Hamabostaldiak Arantzazun poetari egin zion omenaldi samur eta jendetsuan, poema hau irakurtzean Pello Zabala anaiari begietatik ihes egindako negar anpulu anaitasunezko eta amodiozkoek han izan ginenongan zirrara berezia sortaraztea.

Edozelan ere, Gandiagak ez zuen gauzatxu baten asmatu: “Joango naz ixillik, / ta, nork jakingo dau, / iñoiz, il nintzanik, / bizi nazanik ia / iñork ez badaki?”. Poetari, bizi zelarik eta hil ondoren, eskainitako gorazarre, omenaldi eta maitasun-erakustaldiek argi eta garbi uzten dute zein neurritan maite zuten/du-ten euskaldunek Orbelaungo poeta apala.

Euskal Herriak ondotxo zekien Arantzazu aldean bazela elorri xumeak ikaragarri maite zituen frantziskotar bat; bezekien, era berean, euskaldunok bakarka ibiltzeak izugarri mintzen zuen euskaldun jator bat ari zela poesigintzan hango mendi eta harkaitzen artean. Euskal kantariak bazekiten Oteizaren kinadek bultzatuta, txakolinaren zapore mingotsa kantatu bihurtu zuela geroago Madrili kantatuko zion olerkariak. Eta beheraldiak poeta jo zuenean, denok jo gintuen krisiak; eta *Gabon dut anuntzio* aldarrikatu izan dugu behin baino gehiagotan Gabonez poetarekin. Baina, tamalez, oraindik ez dugu ikasi, *abotsik behartu gabe*, gure arteko arazoak eztabai-datzen eta bideratzen.

<sup>9</sup> *Elorri*, 2. argit., 200-201. orr.

Bestalde, adituen esanari lotzen bagatzaizkio —denbora joanago, eta meatarraren obra estimatuago—, argi dakusagu euskal kritikak poeta gorenen artean jarririk daukala Gandiaga dagoeneko. Esandakoaren erakusgarri, honan, Bilboko Liburu Azokak eskainitako “Urrezko Luma” ematean J. M<sup>a</sup> Lekuonak jalgitako hitz esanguratsuok: “Gandiaga XX. mendeko bigarren erdiko euskal poeta nagusia da”<sup>10</sup>.

### **Itxaropena landatuta dago**

“Arbola bat ipintzea esperantza bat landatzea da niretzat” aitortu zion behin Gandiagak Imanol Murua kazetariari<sup>11</sup>. Bide beretik, bere azken liburuan (*Abotsik behartu gabe*) “Bizitza itxaropen delako / landatzen ditut zuhaitzak” esango digu. Ez da gutxi, Arantzazu aldean Gandiagak milaka zuhaitz landatu zituela kontuan hartzen badugu. Hamaikatxo tantaik ematen digute Arantzazun bizitza itxaropen horren berri. Hantxe daude zuhaitzok, bertan dauzkate sartuta euren erroak eta handi-xik luzatzen dira gorantz zerua ikutu beharrez, landatu zituenari oles egin nahian. Dagoeneko, urtebete gehiago dute poetak landatutako itxaropen horiek, iaztik hona zoli abestu izan diote zuhaitzok bizitzari, joandako urte honetan bizitza itxaropenez loratu da beste behin Arantzazuko partean.

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

*2002-02-21*

*Poetaren heriotzaren lehen urteurrenean*

<sup>10</sup> Ekitaldia 1998ko ekainaren 2an burutu zen, Bilboko Arenalean. Egun berekoa dugu ospetsu ere ospetsu bihurtu den honako esaldia ere: “Badira poeta onak, oso onak eta Gandiaga”.

<sup>11</sup> “Ipuinez beteta dator haizea”, *Egunkaria*, 1997-02-02, 40. or.